

INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGINEZ!!

1-Sarrera:

Emakumeon kontrako indarkeriaren hasierari ezin zaio data zehatz bat jarri, betidanik pairatu dugun zapalkuntza bezala uler dezakegu. Erlijio eta sistema sozialen inposaketak zerikusi handia izan duela esan dezakegu. Mundu osoan ematen da, edozein kultura, adin, gaitasun ekonomiko eta jakintza mailatako emakumek paira dezake.

Sistema patriarkalaren adierazpide bortitzena den indarkeria sexistak, maila zein intentsitate orotako espektroa barne hartzen du: begirada bat edo hitz xume bezain iraingarri batetik erailketaraino, hirietako gune arriskutsuak, txiste misoginoak.

Bestalde, indarkeria tresna bezala ere erabiltzen du patriarkatuak emakumea, bere "identitate femeninoan" oinarrituta eta rol hau garatuaz, bigarren mailako herritar izaera atxikitzeko. Egungo antolakuntza eredu heterosexista eta tradizionala finkatu eta garatzen jarraitzen du sasi-etika eta moralara zein erlijioaren bizikidetzara oinarrian jarrita.

Egungo sistema sozialaren, sistema patriarkalaren, mantenua harreman hierarkikoetan oinarritzen da eta hierarkizazio hau sexuaren arabera bakarrik ematen ez bada ere, zapaldu-boteredun/ ez baloratu-baloratu dikotomia erarik orokorrean erakusten duena da. Izan ere, desoreka delakoa izanda ere, emakumea are egoera okerragoan aurkituko da. Sistemak indarkeria desoreka hau mantentzeko erabili du eta erabiltzen du, desoreka delako era berean sistema mantentzen duena pertsona bakoitza rol edo zeregin zehatzetara mugatuz.

Indarkeria sexistak, emakumeok osotasunean baliogabetu edota gutxien gaitu. Ezin da momentu edo epe zehatz batean eragin diguten gaitza bezala ulertu. Askatasunez geure kontzientzia eta izaera garatzeko gaitasuna eta eskubidea ukatzen digu. Berdinen arteko harremanak izateko eskubide gabezia oinarritzen da.

XX. mendea eskubideen aitortzaren mendea izan da. Gure amona eta birramonek sinetsi ezinezko espazio eta egoeretara iritsi bagara ere, azaleko aldaketak izan dira, oinarrian dauden harreman formatik ezer gutxi aldatu baita. Boto eskubidea dugu, ez dugu gure bikoteei baimena eskatu beharrik lanpostu bat eskuratzeko, geure kontu korronteak izan ditzakegu; baina egun gizon batzuk beraien jabetza garelara eta askatasun batzuk ez dagozkigula pentsatzen dute sistemaren konplizitatearekin.

Jendarte sistema mantentzen duten harreman hierarkikoak iraultzean datza indarkeria sexistarekin amaitzeko giltzarria. Neurri zorrotz eta baliabide ugarienek ere ez dute errotik moztuko, jendartearen eta harreman sozialen eraldaketan ez bagara oinarritzen.

Denon ardura da denontzako jendarte justuago bat eraikitzea, bakoitzak bere eremutik beronek barne hartzen dituen esparru guztietan indarkeriak duen eraginaren arrazoi eta oinarriak bilatu eta eraldakuntzarantz bidea egitea.

Bide honetan, mugimendu feminista izan da aitzindaria. Bakoitzak bere eremutik aurre egin nahi izan dio indarkeriaren aferari, baina garaiak aldatuz doaz eta emakumeon aurkako indarkeriari aurre egiteko metodoak berritzeko hausnartu behar dugu. Molde berrien inguruan hausnartu eta era bateratuan neurriak aplikatu zein erantzunez indarrak handitzeko aukera paregabea dugu.

Lan andana dugu aurrean, izan ere, Berdintasunaren Aroan bizi garela sinestarazi digute eta horrek emakume askoren kontzientzia eta alarmak desaktibatu ditu. Egungo indarkeria kasuak oso gutxitan dira emakumeen aldetik arazo kolektibo bezala ulertuak, bakoitzari bakarrik jazotako egoera lazgarri bezala ulertzen ditugu tamalez. Egoeraz kontziente bihurtu eta emakumeak aktibatzea funtsezko egin beharra da kolektibo bezala lan egiteko. Adin, kultura eta maila sozial guztietako emakumeok esnatu eta errealtatearen kontziente egin behar dugu.

Bilgune feministak aurreko urtean egindako hausnarketaren ondorioz emakumeok jasaten dugun zapalkuntza patriarkalari aurre egiteari begira jendarteko baloreak eta egituraketa eraldatu behar dugula uste dugu. Horretarako eskubideen aldeko borroka kokatzen dugu dinamika feministaren diskurtsoa eta praktikaren erdigunean hurrengo urteetan, honela, eskubideen praktika erreala zein eskubide berrien garapena ahalbideratuz. Jendartea eraldatzeko harreman berriak eraiki behar ditugu, hau da gure norabidea.

2-Marko teorikoa:

Sistema patriarkalak emakume eta gizonen arteko harreman hierarkikoak mantendu eta betikotzen ditu. Sistemak genero maskulinoari boterea eman izan dio eta ematen dio, hortik hierarkian oinarritutako harremanak. Genero maskulinoak indarra- agresibitatea erabili du forma negatiboan botere dominazio hori adierazteko. Harreman hauek genero femeninoa, jakitun edo oharkabean, sumisio egoerara bultzatu du.

Jendartean sortutako arau eta egiturek genero bakoitzari bere baloreak eman dizkio botere erlazio hauek mantentzeko; honen adibiderik argiena familia estruktura dugu. Morala da jendartean zer den ona edo txarra definitzen duena, zer den onargarria edo ez; erlijioa, ohitura eta jendartearen antolakuntzarekin lotura zuzena duena; emakume eta gizonen jokabidea eta harreman afektibo zein sozialak baldintzatzen dituen.

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

Sistema patriarkalaren ondorioz sortzen diren sexuen arteko harreman hierarkikoen oinarriak azaldu ditugu orain arte eta jendartearen eraldaketari buruz ari garenean harreman berriak sortzeari buruz ari gara. Harreman berriak sortzeko emakumea eskubideak dituen subjektua kontsideratu behar da. Gaur egun sistema neoliberal honetan egiten den herritartasun definizioan emakumeak bigarren mailako subjektutzat hartzen gaituzte. Egungo sistema neoliberallean egindako herritartasunaren definizioan bigarren mailako subjektuak gara. Nazio Batuak eta nazioarteko instituzio ezberdinak herritartasun definizio orokorra egiten saiatu badira ere oso argi dugu emakumeoi atxiki izan diguten mundua ez dutela kontuan hartu. Eskubideak eta herritartasun kontzeptua “publikoa” deiturikoan oinarrituta garatu dira, “pribatua” deiturikoa saihestuz.

Emakumeok “publiko” izendatutako horretan egitura sozial anitzetan parte hartzen badugu ere, gure funtzio nagusiak “pribatuari” lotuta zeuden eta jarraitzen dute -ez zaigu berdin balioesten eta ikustezinak gara-. Beraz, emakumeok bigarren mailako herritartatzat hartuak gara. Ez gara jendarteko subjektu aktibotzat hartuak, gure parte hartzea egitura sozialetan ez da berdin baloratua gure ekarpena ez delako aitortua izaten. Emakumeon parte hartzea ez da berdintasunean ematen.

Jendarte berria sortzeko harreman berriak ezaugarritzen ahaleginduko gara, emakume eta gizonak balio berdina dugu eta balore ezberdinetan oinarrituko diren erlazio afektiboak eta sozialak izango dira.

Indarkeria sexistaren gainditzea Euskal Herriko jendartea osatzen dugun emakume eta gizonen arteko harreman berriak eraikitzeetik dator. Horretarako ezinbestekoa da bi sexuei berdintasun errealaren kontzeptua atxikitzea eta balorazio sozial berdina egitea bi generoen artean, bereizketarik gabe. Bide honetan emakume eta gizonek berdinen arteko harremanak sortuko dituzte, pertsona guztiak -identitate indibidual/ kolektiboagatik bereizketarik egin gabe- berdin baloratzen diren jendarte batean.

Harreman indibidual eta kolektibo berrien sorkuntza oinarritzat hartzen diren baloreen arabera baldintzatua izango da. Horregatik Euskal Herriko emakumeen Karta hartu dugu abiapuntutzat zein eratako baloreek ezaugarritu beharko lituzketen emakume eta gizonen artean eraiki beharreko harreman berriok definitzeko.

Hiru baloreak elkartasuna, parekidetasuna eta askatasuna dira. Sortu nahi ditugun sexuen arteko harreman berriak askatasunean oinarritu behar dira. Askatasunari buruz ari garenean guk nahi duguna eraikitzeko garaian geuk erabaki ahal izateaz ari gara, bai maila pertsonalean bai kolektiboan, beti ere besteekiko errespetuz, hau da, gure etorkizuna nahi dugun bezala erabaki eta eraiki ahal izatea.

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

Baloreekin jarraituz parekidetasuna dugu. Parekidetasuna definitzerakoan sexu banaketa gainditu eta pertsona guztiak bere identitate propioarekin baloratua izatea esan nahi dugu, eskubide eta betebeharrak berdinekin eta emakumeon parte hartzea eta botere hartzea jendarteko eremu guztietan egingo da.

Azkenik harreman berriak elkartasunean oinarrituko dira. Elkarlan, onarpen, elkarrizketa eta elkar-laguntza modura ulertzen dugu elkartasuna, baina baita estrategi modura ere, bizitzeko elementu modura martxan jarri behar duguna. Honek inplikazioa eta konpromisoa eskatzen du. Elkartasun feminista bezala definitu dugun elkartasunaz ari gara.

Orain arte esandakoarekin ahalegindu gara modu xumean definitzen nolako harremanak sustatzen dituen sistema patriarkalak eta nolako harreman berriak sortu beharko ditugun jendartearen eraldaketa lortzeko. Laburbilduz, emakumea subjektutzat hartzen denean, hau da, eskubide osoko herritartzat hartzen denean, gizon eta emakumeak balio berdina dugun jendarteko kideak garenean eta hortik abiatuz elkartasunean, askatasunean eta parekidetasunean oinarritutako interakzio afektibo eta sozialak sortzen ditugunean beste Euskal Herri berri bat sortu dugula eta patriarkatua gainditu dugula esango dugu.

3-Emakumeon kontrako indarkeria:

Emakumeon kontrako indarkeria, indarkeria patriarkala bezala ulertzen dugu. Egiturazkoa da eta sexuen arteko boteredun-mendeko erlazioan oinarritzen da, harreman hierarkikoetan. Erlazio hauek mantendu eta erreproduzitzeko genero maskulino eta femeninoaren oinarri den rol sistema garatu da, baldintza soziokultural edo jendartearen testuinguru natural bihurtuz. Jendarte-ordena erabakitzen duten arau eta balio sozio kulturaletan du jatorria eta oinarria.

Beraz, indarkeria sostengatzen duten joera eta egoerak ez dira jendartean dauden subkultura edo marginalitate irla batzuk. Joera hauek jendartea birstortu eta egituratzen duten instituzioetatik garatzen dira. Batzuetan zuzen-zuzenean (diskurtso komunikatiboak, asfixia ekonomikoa, hezkuntza baloreak...) eta besteetan instituzio hauetatik indarkeriari aurre egiten dioten jarduera edo diskurtsoak ez zuzentzerakoan, zeharka, normalizatua dagoen errealitatea mantenduz.

Jendartean bertan indarkeria mota honekiko aurkitzen ditugun jarrerak pasibitatea eta konplizitatearen tarteko espektroa marrazten digute.

Komunikabideetatik gertakarien irakurketa morbosoa eta biktimista ematen diguten bitartean jendartetik bertatik ez dira erantzun kolektibo eta indibidualak martxan jartzen ezta zeharkako prebentziorako urratsak ematen ere.

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

Gaur egun tratatu txar fisikoak eta emakumeen erailketetan zentratzen da emakumeon kontrako indarkeriaren inguruan jendartean dagoen pertzepzioa, indarkeriaren zentzu globala galduaz. Horrela, arazoaren dimentsioa distortsionatu egiten da. Gutxi batzuen arazo pertsonala denaren ustea zabaldua da, migrazioaren pisu gehituarekin lotutako kasu bakanak.

Dimentsio hau ulertzeko ezinbestekoa da indarkeria sexista osatzen duten faktore eta momentu guztiak ongi identifikatzea; hala nola emakumeon biziko une guztietan eragiten digun zerbait dela ulertzea.

Honela, pertsona arteko harremanek osatzen duten espektro afektibo-emozionalak hezkuntzaren bidez jasotako oinarri oso sendoa du. Norbanakoaren planoan, ingurukoekin kontaktuan jartzeko moduak, ikasitakoak eta eredu zehatzak jarraitzeko eraikiak dira: bikote harremanak, sexualitatea, familia, zaintzaren etika. Modelo hauek biziaren esparru guztietan, jendartearen estruktura guztietan birsortzen dira.

Bide honetatik, bizi dugun sistema patriarkal neoliberalak emakumeak bizi dugun zapalkuntza betikotzen eta bere onurarako erabiltzen jarraitzen du, indarkeria sexista zapalkuntzaren adierazle nagusia da.

Eredu ekonomikotik sexuaren arabera lan banaketa iraunarazteak eragin zuzena du emakumeok jendartean jokatzeko dugun paperarekin. Gaitasun erreproduktiboa, etxeko lanak eta zaintza garatzea posible egiten duten lanpostuetara zuzendu gaituzte. Ez bakarrik atxikitako rola mantentzen dituzten lanpostuetara bideratuta; hau gure bigarrenengo egin beharra dela sinestarazita ere.

Hezkuntza sistemaren bidez, roletan oinarritutako heziketa jasotzen dugu. Harreman hierarkikoak eraikitzen eta erreproduzitzen ikasten dugu txiki txikitatik eta sozialki dugun estrukturarari erantzuteko sortutako eskemak menperatzeko tresna nagusia da.

Sexu bakoitzak duen papera eta historian zehar izan duen intzidentziaren distortsioa ematen da sistema patriarkalaren beharrei erantzunez.

Sistema kulturalak hau guztia sozialki finkatu eta erreproduzitzeko arau eta eredu zehatzak jartzen dizkigu mahai gainean, aisia eta astia bizitzeko moduan, eguneroko errutina eta azturetan.

Aurreko guztia aldatzen ez den heinean emakumeon partehartze politikoa mugatua izango da. Instituzioetatik, sexuen arteko desberdintasunak garatzen jarraitzeaz gain politikoki dugun parte hartzeak ere aurretiaz aipaturiko jendarte estruktura horietan eragitea eragozten digu.

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

Jendarteko estruktura guztietan zehar mantendutako botere harremanek gure bigarren mailako herritar kondizio eta kontsiderazioa berresten dute. Botere harreman hauetan oinarritu dezakegu emakumeok egunero bizi dugun zapalkuntzaren funtsa.

Botere harreman hauek sortzen dute, finean, indarkeria estrukturala; emakumeok gure azalean zuzenen bizi ditugunak: indarkeria fisikoa, indarkeria psikologiko eta afektiboa, indarkeria sexual edota ekonomikoa.

4-Egungo egoeraren hutsune eta zertzelada batzuk:

Atal honetan ez dugu emakumeen kontrako indarkeriaren egoerari buruz analisi bat egingo, egun indarkeri sexistari aurre egiteko dauden hutsuneetan zentratu gara. Borroka honen aktore ezberdinak helburu berdina dugu, indarkeria sexistarekin bukatzea. Hau kontuan hartuta, azterketa hau egiterakoan dauden ahulgune nagusiak detektatu eta hauen inguruko eztabaida ematea dugu helburu.

Emakumeak indarkeri sexista jasaten dugun bitartean Euskal Herrian demokraziarik ez dagoela onartu behar dugu. Momentu honetan afera hau ez da parametro horietan kokatzen, demokrazia ezari buruz ari garenean ez da sexu-genero gatazka errekonozitzen.

Sistema hau mantentzen duten instituzio eta estruktura ezberdinak emakumeon kontrako indarkeriaren dimentsio globala onartzen dute ia guztiak. Indarkeria estrukturalaren definizioan erakunde eta instituzio ezberdinak izaera orokorra eman badiote ere, arazoari aurre egiteko neurri partzialen diseinua egiten da, adibide argia izan dezakegu Nazio Batuetakoa¹. Ez du indarkeriaren erroetara jotzen azkenean egun dagoen sistemaren kontra joatea suposatuko lukeelako eta botereak patriarkatua mantendu behar duelako bere helburu guztiak lortzeko. Indarkeriaren izaera estrukturala benetan onartuko balute jendartearen eraldaketa bultzatzera behartuak egongo lirateke.

Emakumeon kontrako indarkeriari aurre egiteko politika instituzionalak tratu txarretan zentratzen dira. Adibide bat dugu Estatu espainoleko legea, "Genero indarkeriaren aurrean babes integralerako Neurrien Legea" deritzona, non oso argi geratzen den bere oinarrietan egiten den definizioa, bikote erlazioan ematen den indarkeriari erantzuteko sortutako legea baita, bikote eta bikote ohi aintzatetsiaz.

Berdintasun errealak ez du berarekin berdintasun formala ekarri. Nahiz eta instituzioek egoera hau errekonozitzen duten, ez dute aldatu ezta bestelakotu ere beraien antolakuntza eta praktika

¹ "Todo acto de violencia que tenga o pueda tener como resultado un daño o sufrimiento físico, sexual o psicológico para las mujeres, inclusive las amenazas de tales actos, la coacción o la privación de libertad, tanto si se produce en la vida pública o privada"

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

politikoa. Instituzioek berdintasun faltsua mantendu eta birproduzitzen dutenaren ustean gaude, beraiek emakumeen zapalkuntzatik mozkin politiko eta ekonomikoa lortzen dutelako.

Politika instituzionalen defizitik handienetakoak hartutako konpromisoa garatzerako orduan azaltzen dira. Beraien planetan konpromisoak irudikatzen badituzte ere, berauen definizioan bakarrik geratzen dira, ez dute neurrien benetako planteamendurik egiten.

Agenda politikoan ez da inolako lehentasuna izan. Instituzioen inplikazio publikoa emakume bat erailtzen dutenean bakarrik ikusten dugu era sinbolikoan: kontzentrazioak egin, mozioak aurkeztuz...

Indarkeria sexistari aurre egiteko instituzioetan definitzen diren planak perspektiba protekzionistatik egiten dira, emakumearen independentzia ekonomikoa eta psikologikoa bultzatu beharrean, menpeko izaera bultzatuz. Martxan jartzen diren neurriak urgentziako neurriak dira, momentuan egoerari erantzuteko eta epe motzeko soluzioak planifikatzen dituzte. Berehalako erantzuna, baina ez arazoari erantzun integrala ematekoa.

Neurriak ez dira eraginkorrak eta instituzioak nola dauden antolatuak ikusirik, bakoitzak bere planetan neurriak planteatu baditu ere, gero hauen arteko koordinazio falta dagoela nabaria da. Indarkeria sexista ez da zeharkakotasunez lantzen, ondorioz ez dago langileriarekin lan jarraiturik, formakuntzarik, errekursorik, denborarik, ezta aurrekonturik ere.

Politika instituzionalak dituzten hutsuneen azterketa egiteko beste ponentzia bat egin beharko genuke, hemen hutsune nagusiak detektatzen ahalegindu gara eta, hauen artean, plan ezberdinek duten aurrekontu falta aipatu behar dugu. Aurrekontuetan ez da inoiz espezifikoki agertzen indarkeria sexistari aurre egiteko diru partidarik, beti beste apartaturen baten barnean kokatzen da eta kantitate oso txikiekin. Hartutako konpromisoak betetzerako momentuan hau da hutsuneetako bat.

Sistemak martxan jarritako lege eta neurriek ez dute eraldaketa helburu, harreman hierarkikoak mantentzen dituzte. Neurri eta lege hauek botere harremanak mantentzen eta sustatzen dituzte, bati boterea emanez eta besteari ez. Egoera zehatz batzutan neurri hauek ematen duten pribilegioen erabilpen negatiboa egiten da mendekua bilatzeko edo, sinpleki esanda, harreman hierarkikoak mantentzen dituzte alderantzizko norabidean.

Azkenik, hutsuneekin amaitzeko, plan hauen jarraipen eza nabaria da, ez dago emakumeak eta emakume mugimenduekin adostu eta planifikatutako ebaluaketa mekanismorik. Gainera, eremu hau lantzeko sortutako markoen ezegonkortasuna dela medio, ebaluaketa ez dela jarraia gehitu behar dugu. Honen ondorioz neurrien eraginkortasuna ezin da aztertu eta azkenean planak beti berdinak dira.

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

Egoeraren inguruan dauden elementuekin jarraituz, sistemak tratu txarren existentzia emakumeen erresponzabilitatean kokatu du, arazoaren gainditzea bizi duen emakumearen jarrera indibidualean kokatzen da eta ez du politika instituzionalen eraginkortasun faltan kokatzen. Momentu honetan askotan entzun dezakegu indarkeria pairatzen duten emakumeek irtenbidea eskura dutela, gobernuek aukerak ematen dituztelako. Baina kasu askotan indarkeria kasuarekin ez bada bukatzen emakumearen ardurapean kokatzen da gabezia. Adibide bat jartzekotan urruntze aginduak aztertu ditzakegu; komunikabideek emakumeen kontrako indarkeriaren berriren bat ematen dutenean azpimarratu egiten dute urruntze agindua bazegoela baina emakumeak utzi diola hurbiltzen erasotzaileari. Honela, indarkeria kasua arazo pertsonal bezala kokatzen du, lortutako dimentsio politikoa galduz.

Sistemaren jarrera aztertzen saiatu gara eta politika instituzionalen hutsuneak kokatu ditugu. Indarkeria sexistaren inguruan ari garenean badaude aipatzea merezi duten beste elementu batzuk ere, sistema patriarkalaren ondorioz emakumeok zapalduak jarraitzearen oinarri baitira. Harreman hierarkikoen bidez, emakumei sumisio papera hartu arazi digute. Gainera, paper hori hartzea aukera pertsonal gisa kokatu dute, berdintasunean bizi garen ideia zabaldu eta emakumei benetan beronen hobariak ditugula sinestarazi digute.

Emakumeak biktima bezala kontsideratuak dira, martxan jarritako hainbat neurritan biktima izateagatik "sartu" egiten zaie. Honekin ez da emakumeen independentzia bultzatzen, zaila baita aldaketaren bidea egitea zeure burua biktimatzat duzunean. Neurri protekzionista eta asistentzialistetan zentratzen dira; beste harreman batzuk eraiki, beste bide bat egiteko beharra azpimarratu gabe.

Emakume batek bikote harremanen markoan indarkeria sufritzen duenean eta bere erlazio afektiboa apurtu behar duenean, jendarteak espero duenaren frakaso sentitzen du eta bere independentzia pertsonala garatzeko indarrik ez dauka, jendartea hala estrukturatua dagoelako. Garrantzitsua da jendartearen gaitzespenaren beldurrak emakumeengan duen ondorioa aipatzea. Indarkeria sexistaz orokorrean hitz egiten badugu, argi dago jendarteak ez duela emakumeen independentzia pertsonal eta ekonomikoa errazten eskubide propiorik gabeko herritarrak izatera mugatzen dituen.

Sistema eta politika instituzionalen ezaugarritzea egin dugu eta honen aurrean mugimendu feministak bere borrokaren bitartez hainbat gauza lortu ditu. Esan beharra dago dagoen apurra, nahiz eta hutsune asko izan, gure borrokaren lorpena dela.

Mugimendu feministak, bere borrokari esker, gauza ugari lortu ditu. Horien artean indarkeria sexistak izaera estrukturala duela ikusarazi eta dimentsio politikoa eman dio salaketa eta borrokaren bidez.

Lorpenak handiak izan badira ere, XXI.mendearen hasieran gaude eta emakumeen egoeraren inguruan gauza asko aldatu dira. Jendartearen estrukturak ere bere funtzionatzeko era aldatu egin du eta, lehen aipatu dugun bezala, berdintasunean bizi garela sinestarazi digu.

Bestalde, sistemak mugimendu feministaren aldarrikapen eta borroka anitzak asimilatu egin ditu, baina ez jendartea eraldatzeko, sistemak behar dituen helburuak eta estrukturak mantentzeko baizik. Esan daiteke gaur egun patriarkatuaren ondorioak ez direla hain argiak, botereak -batzutan eskuina eta pseudo ezkerre bestetan- sistema neoliberallean mantentzeko duen metodoa delako. Ezkerre honetaz ohartu da baina ez ditu beharrezko bitartekoak jarri ofentsiba patriarkal neoliberalari aurre eginez lan egiteko. Feminismoa egoera berdinean dago, sistemak asimilatu egin ditu bere aldarrikapenak eta berdintasun faltsuaren garai honetan borroka feministaren beharra gutxietsi du.

Beraz, badago egin beharreko autokritika, egun mugimendu feministak dituen hutsuneak aztertzea ezinbestekoa da, aurrera begira, gure egitekoak zeintzuk izan behar diren lantzeko.

Azken urteetan emakumeon kontrako indarkeria bisibilizatu dugu, pausu garrantzitsuak eman ditugu indarkeria honi eman beharra dagoen dimentsio politikoan. Baina praktika politikoan aztertzerakoan kasu konkretuen salaketa kanpainekin aurkitzen gara. Ondorioz askotan jendarteak kasu isolatuak balira bezala jaso ditu, emakumeon kontrako indarkeriak duen izaera estrukturala eman gabe.

Urte asko daramagu diskurtso berdinarekin, ez dugu indarkeriaren inguruko diskurtsoa eguneratu eta ez gara kokatu gaur egungo egoeran, non instituzioetatik berdintasun faltsua saltzen ari zaizkigun. Politikoki zuzena deritzogun diskurtsoari aurre egin behar diogu, bai edukietan baita praktikan ere.

Aldaketa instituzioetatik iritsiko dela pentsatu dugu. Erantzuna eta prebentzioa beraien eskuetan utzi dugu, jakinaren gainean egonda eraldaketaren aldeko apusturik ez dutela egiten eta proposatzen dituzten neurriak biktimizazioan eta asistentzialismoan oinarrituta daudela. Arazoaren dimentsioa onartzea lortu badugu ere, emakumeon kontrako indarkeria gainditzeko diskurtsoan eta praktikan aurrera egin behar dugu.

5-Aurrera begira:

Orain arte aztertutako guztia kontutan izanik Bilgune feministatik bi esparruetan lan egitea proposatzen dugu, prebentzioan eta erantzunean. Proposamen hauek aliantzak sortu eta dinamika berriak martxan jartzeko baliagarriak izan daitezkeela pentsatzen dugu. Mugimendu

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

feministako talde guztiak indarkeriarekin bukatzea dugu helburu, jendarte feminista bat sortu nahi dugu. Ikuspuntu desberdinak baditugu ere, helburu bera izanik, adostasun batzuetara heltzeko aukerak aztertu behar ditugu.

Proposamenen konprezioan sartu baino lehen beharrezkoa ikusten dugu hainbat eztabaida ematea gure diskurtsoa eguneratzeko. Bilgune feministatik emakumeon kontrako indarkeriaren inguruan dugun praktikan ikusten dugun behar bat da eta mugimendu feminista osoarekin elkartrukatu nahi genuke. Jardunaldietan horretarako ariketa egingo badugu ere etorkizunean hausnarketa honetan sakontzea ezinbesteko afera izango da.

Prebentzioa eta erantzuna izango dira egin beharrak. Hauen definizioa eta praktika ezaugarritzeko ahalegina egin dugu.

Prebentzioari buruz hitz egiterakoan eraldaketari begira oinarriak jartzeko bideari buruz ari gara. Etorkizunari begirako prebentzio bezala definitu dugu. Heziketan oinarritutako prebentzioa izango da, non hezkuntza sistema osoa eta jendartearen ideologizazioan parte hartzen duten tresna guztiak aldatu beharko ditugun. Balore ezberdinetan oinarritutako heziketa sortu behar dugu, identitate berriak edota balio berdineko identitateak sortzen dituztenak, non emakumeak eskubide osoko herritarrak kontsideratuak garen. Balore hauek harreman berrien oinarri izan behar dira. Balore feministetan oinarritutako heziketa sortu behar dugu.

Lortu beharrezkoa hau izanik, argi dago errealitatetik abiatu eta berreziketa bat garatzen hasi behar garela jadanik. Horretarako adinka eta kolektiboka prebentzio neurrien aldarrikapena kokatzen dugu, bai heziketa formalean zein ez formalean. Mugimendu feministak lan ideologikoa eta agitazioa bere lan praktikoan kokatu behar du berriro eta, instituzioei eskatzeaz gain, emakumeengandik emakumeentzako borroka eta ekimenak landu behar ditu. Autogestioa eta proiektu berriak garatu behar ditugu jendartearen eraldatze bidean pausu errealak emateko.

Adinkako prebentzioaren proposamena egin dugu, baina badakigu elementu asko zeharkakoak direla eta kolektibo guztietan errepikatzen direla. Proposamena gehienbat emakumeekin lantzeko da.

Nerabeei begira, pertsona guztien garapen integrala landu inolako ezberdintasuna kokatu gabe, harreman eredu ezberdinak ezagutarazi, sexu hezkuntza garatu beharra dago elkartasuna, askatasuna eta parekidetasuna landuz. Feminismoa ezagutaraztea eta kontzientzia piztea oinarritzeko dira. Formakuntza ezinbestekoa izango da hau guztia ziurtatzeko, formakuntza espezifikorako kurtso bat sortu beharko dugu eskoletan integartzeko baina batez ere autogestiotik abiatutako eskolak sortu beharko ditugu.

Gazteengan heziketa berriro eraiki behar dugu, orain arte sortutako identitateekin apurtuz.

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

Sexualitatea eta harremanak landu, familia eredia apurtu... Berreraikitzeko oinarriak jarri eta emakume gazteen parte hartze soziala eta politikoa ahalbidetzen joan. Kontzientziazio lana eta formakuntza feministaren bidez kontzientzia feminista piztu behar dugu gazteengan. Eskola feministak bezalako esperientzia ereduak ditugu adibidetzat.

Pertsona helduetan eta konkretuki emakume helduetan garapen pertsonala landuko dugu, geure eskubideen jabetza eta berdintasun faltsuaren diskurtsoaren iruzurrari begira lan ideologikoa garatuz eta formakuntza espezifikoa landuz. Komunikazioa eta gatzak konponbideari begirako formakuntza. Independentzia pertsonala eta ekonomikoari begirako lanketa ideologikoa.

Berrogeita hamar urte baino gehiagoko emakumeak patriarkatuaren ondorioak oso ondo ezagutzen duten emakumeak dira, baina ez dute biderik ikusten horren kontra egiteko. Lantzeko ildo nagusiak osasuna, independentzia ekonomikoa eta eskubideen jabetza izatea, indarkeria ez pairatzeko eskubidea dira.

Errealitate horretatik abiatuta eskaera zehatza egin behar dugu komunikabideei begira. Erakusten diguten harreman eredia aldatu beharko dute eta indarkeriari begira egiten den trataera modu integralagoan eta ez morbosoa izan beharko da. Komunikabideek betetzen dituzten funtzioak ikusirik, ikuspuntu prebentibo eta sozializatzailean kokatuta, oso garrantzitsua iruditzen zaigu indarkeriaren gaia nola tratatu eta adierazten duten. Ideologia sortzaileak diren momentutik indarkeriaren dimentsio sozial eta politikoa indartu behar dute. Proposamen gisa Bilgune feministak egindako dekalogoaren atal batzuk erabil ditzakete, eranskin moduan gehitu duguna.

Erantzuna nola izan behar duen defintzerakoan jendarte osoari inplikatzeko bilatu dugu, proposamenak dira eta ez dira berriak, baina lan estilo hau berreskuratzea edota egun planteatuta ditugun beste batzuk indartzea ezinbestekoa dela uste dugu.

Autodefentsa izango da emakumeekin landu beharreko puntutako bat, autodefentsa indibidual eta kolektiboa. Autodefentsa feminista ikastaroak antolatu behar ditugu. Eskoletan honen inguruko kurtsoak sartzeko lanketa egin behar dugu eta espazio propioak sortu beharko ditugu autodefentsaren ildoak garatzeko.

Erasotuak izan diren emakumeentzako atentzioan aurrerapausoak eman behar ditugu. Zein motatako ezaugarriak izan behar dituzten exijituko ditugun neurriak adostuz, instituzioei begirako interpelazioa eginez. Nolakoa? Pertsonaren garapena ziurtatuko dituzten neurriak (laguntza psikologikoa) eta pertsonaren beharrak ziurtatuko dituzten neurriak (etxebizitza, enplegua...). Hauen eraginkortasuna ziurtatzeko dirua eta benetako konpromisoa ezinbestekoak dira.

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

Erasotzaileei begira bazterketa soziala bultzatu behar dugu: "Erasotzaileak herrietatik at!" lemapean lan ideologikoa eta eztabaida zabaltzea izango da lehenengo pausua. Identifikatu, deslejitimatu eta gure gunetatik kaleratu. Instituzioak ere bere papera bete behar dute zeregin honetan.

Erasotzaileak babesten dituztenei aurre egin, gure kontrako jarrera azaldu behar diegu kaleko interpelazio dinamika eginez eta instituzioei dagokionez, neurri zehatzak eskatu behar ditugu. Adibidez enpresaren batean sexu jazarpena eman bada eta ez badute ezer egin, zigortu edo subentziorik ez ematea.

Jendartearen erantzun soziala artikulatu behar dugu, non mugimendu feminista izango den dinamizatzailea. Dinamika ezberdinak sustatu beharko ditugu jendarte osoaren erantzuna artikulatzeko.

Mugimendu feministak Euskal Herrian emakume bat erailtzen dutenerako protokoloa adostua dauka. 48 orduetara mobilizazioak egiten ditugu herri ezberdinetan. Protokoloa indartu eta beste herri batzuetara zabaldu behar dugu.

Emakumeen artean elkartasun feminista indartu behar da, babes sareak sortuz, erasotzaileei aurre egiteko indarrak bilduz eta gure autodefentsa kolektiboa sustatuz.

Auzoetan eta herrietan babes eta denuntziarako sare lokalak osatu behar ditugu. Auzokide elkarrekin protokoloak sartuz, indarkeri kasuren bat badute bere auzoan salatzen dinamika martxan jarri behar dugu.

Erasoen aurrean herri mugimenduaren erantzunaren artikulazioa mugimendu feministaren esku gelditzen da. Erantzun hutsa, politikoki zuzena dena, gainditu eta erantzun erreala artikulatu behar dugu gure artean kasu bat dugunerako erantzun protokolo bat sortuz. Adibide bezala kontuan har dezakegu herri batzuetan adostua dagoela gutxi gora behera nola erantzun behar den; mobilizazioak egiten dira emakumeren bat eraila izan denean eta paroak egitera ere iritsi dira.

Jendartearen kontzientzia piztu behar dugu. Emakumeon kontrako indarkeriaren aurrean gaitzespena dagoela baieztatu badaiteke ere, erantzuteko orduan oraindik ere aurrerapausoak eman behar ditugu. Modu kolektiboan eta indibidualean erantzuteko tresnak sortu behar ditugu. Edozein lekuan edozein momentuan eraso sexistaren bat gertatzen ari dela ikusten dugunean erantzun bat emateko dinamika errez bat asmatu behar dugu.

Komunikabideak erantzuteko beste bozgorailua dira, tresna eraginkorra izan daiteke lanketa

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

ideologikoa egiteko. Emakumeon kontrako indarkeria beharrezko dimentsioarekin landu dezaten konpromisoak hartu eta praktikara eramatera bultzatzea proposatzen dugu. Lanketa hau egiteko Bilgune feministak egindako dekalogoia baliagarria izan daiteke.

Proposamen zehatzak egitea izan da gure helburua, hemendik aurrera lan handia dugu egiteko. Zelan planteatuko ditugun eta nola artikulatuko ditugun indarrak aztertu behar dugu. Ez dira proposamen berriak eta egiten dugun hausnarketa mugimendu feministak urteetan landutakoaren ondorio da, beraz lan estiloa errekuiperatzea ezinbestekoa izango dela uste dugu.

Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2008ko otsaila.

Eranskina: Komunikabideentzako dekalogoia.

ANEXO: INDARKERIA SEXISTARI BURUZKO ERABILPENA
BEREGOKITZEKO DEKALOGOA

1. SAR HITZA.

Sexuen arteko botere harremanen ondorioz emakumea zapalduta egotea emakumeen kontrako indarkeriatzat jotzen dugu. Halaber, instituzioetan, hezkuntza sisteman, eremu laboralean, osasun sisteman etab. Ematen diren harremanak ere hierarkikoak dira, emakumea zapalduta dagoelarik. Emakumeok emakumea izateagatik errepresio eta bereizketa sistema hau bizitzaren eremu guztietan pairatzen dugu. Ondorioz, egiturazko arazo sozial honi aurre egitea jendarte osoari dagokio.

Hau da, gatazka hau konpontzea eta jarrera sexisten kontrako ekimenak burutzea pertsona ororen ardura da eta ez berriz, arazoa pairatzen duen emakumearen zeregina. Halaber, lehenetsuneko arazotzat hartzea eta behar bezala ekitea instituzioei eskatzea guztion bete beharra da.

Emakumeok askatasunez bizitzeko eskubidea dugu. Beraz, eskubidea bermatzeko eta gauzatzeko, instituzioek eta giza eragile zein politikoek behar diren neurriak, tresnak eta bitartekoak ezartzea ezinbestekoa da. Esaterako, indarkeria sexistaren inguruko kontzientziazio lana burutzea.

2. DEKALOGOA.

Jarraian dagoen protokoloa sinatzen duten hedabideek, haien jardueran honako puntuak txertatzeko konpromisoa hartzen dute.

1. **Emakumeen kontrako indarkeria egiturazkoa den heinean, hedabideek horrelaxe islatu eta irudikatu behar dute.** Sistema patriarkarraren ondorioz, indarkeria sexista bizitzaren esparru guztietan ematen da, modu ezberdinetan islatzen delarik. Esaterako, lan eremuan emandako bereizketa, irakatsitako hezkuntza sexista, etxeko eta familiaren zereginak emakumearen gain hartzea edota sozialki izendatutako emakumeen aurkako indarkeria (eraso psikologiko zein fisikoa).

Egiturazko arazoa den heinean, eta errotik ateratzeko, bitarteko eta mekanismoak ere egiturazkoak izan behar dira. Hau da, neurri kointuralak hartzean ez datza, jendartean eraldaketa sakona egitea baizik.

2. **Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazioak ez dira gertakari isolatuak.** Honako informazioak helarazterakoan egungo testuinguruan kokatu behar

Indarkeria sexistari aurre eginez!!

dira, emakumeek pairatutako zapalkuntzaren egoeraren ondorioztat hartuta. Hau dela eta, informazio hauek behar duten espazioa eta garrantzia bermatu behar da (besteak beste, "laburrak" edo "gertakariak" bezalako ereduak ekidinez)

3. **Ez dago erasotzaile ezta biktimaren profilarik.** Erasotzaile edota biktimaren maila soziala, kulturala edota ekonomikoa jakin batekoa den ideia edota irudia ez dugu helarazi behar.
4. **Estereotipo eta eginkizun (rol) sexistaren erabilpena ekidin.** Emakumei eta gizonei betidanik egokitutako estereotipoek emakumeen aurkako indarkeria iraunarazten dute. Beraz, errealitatea irudikatzen ez duten hainbat adierazpen eta izenondo ekidinen dugu (esaterako, "pasiozko hilketa", "etxeko indarkeria"...))
5. **"Sensazionalismoa" saihestu.** Helaraziko den informazioa nabarmena eta serioa izan behar da. Hortaz, adituak ez diren pertsonen iritziak (auzokideen adierazpenak) ez dira kontutan hartuko.
6. **Jarraipena egokia landu.** Indarkeriaren gertaera ez da eraso soilik, baizik eta eratortzen den prozesu osoa (salaketa, epaiketa, zigorra...). Beraz, prozesu osoaren berri helarazi eta landu behar da.
7. **Elementu positiboak irudikatu.** Indarkeria sexista pairatzen duten emakumeak bizitza "berregiteko", aurrera egiteko gauza dira, eta komunikabideek horrelaxe islatu behar dute, beste emakumeek urratsa eman dezaten lagunduz.
8. **Informazioaren helburua laguntzea, jendarteratzea eta aurre hartzea da.** Egoera latza gainditzeko dauden baliabideak eta bitartekoen berri (legeak, laguntzarako telefonoak, helbideak...) plazaratu behar da. Bestalde, indarkeriaren ondorioak detektatzeko elementuak helarazi behar da.
9. **Salaketa soziala.** Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean, Mugimendu feminista eta giza eragileek burutzen duten mobilizazioak, salaketak eta ekimenen berri helarazi behar da.
10. **Ikuspuntu integrala indarkeria deusestatzeko.** Informazioaz gain, hainbat elementuek (musika, irudiak, komikiak, publizitatea) ere emakumeen zapalkuntza eta indarkeria sexista iraunarazten dute. Hortaz, elementu hauek ekidin behar dira.